



Herritarren interesa piztu dute Saharari buruzko filmak eta solasaldiak

Ihaintza Elustondo 2020-12-23 12:07



Saharari buruzko *Haizearen egia* film laburra aurkeztu zuten atzo, Elkargunean. Ondoren, gaiaren inguruko solasaldia izan zen.

Saharari buruzko *Haizearen egia* filma aurkeztu zuten atzo, asteartea, Elkargunean, eta ondoren, Saharako egoeraren inguruko solasaldia izan zen. Gaiak interesa piztu zuen, eta herritar ugari bertaratu zen saiora. *Haizearen egia* film laburra Ekain Albite zumaiaarak zuzendutakoa da, eta berak ere parte hartu zuen emanaldiaren ondorengo hitzaldian, Fatimetu Zenan saharararekin nahiz Darahli elkarteko Samuel Ruizekin batera.

Euskal Herrian bizi den Tahar 20 urteko saharararen istorioa kontatu du Ekain Albitek *Haizearen egia* film laburrean. Haren familia Tindufeko errefuxiatuen eremuan bizi da, eta handik dei bat jasoko du berri txar batekin: aita hilzorian dago. Saharara itzuliko da eta han aurre egingo dio iraganeko oroitzapenei eta kontraesanei.

Haizearen egia film laburra Maluta* Filmsek ekoiztu du, eta Zestoako eta Zumaiaiko udalen, Euskal Fondoaren, Darahli eta Wadna elkartearen nahiz Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du. Lekeitiko Euskal Zine Bileran epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen.



Esteka: <https://maxixatzen.eus/azkoitia/1608722301140-herritarren-interesa-piztu-dute-saharari-buruzko-filmak-eta-solasaldiak>